



Agirregoitia (-a) etxebizitza

Aldaerak:

Ahozkoa: Agérrégóti



43° 11' 29"

2° 34' 53"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Aguirregoitia... situada en la barriada de Andicono jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende setenta y un estados superficiales de planta solar, y la que se compone de piso llano con zaguan, dos cocinas y cuadras, y de piso principal con cuatro cuartos y el pajar y de desban, siendo su construcción de paredes de mampostería por los cuatro costados, y las cerraduras del zaguan, angulos y los telares de las puertas y ventanas de piedra labrada..."

DJE, 2/ 23 or. (1866)

Bizitza biko baserri honen gaineko lehen aipamenak, **Agirre (Ikus Agirre)** baserriaren garaikoak dira. Bizkaiko su-erroldean 1704. urtean *Aguirregoitia* izena jasotzen da Andikoa kofradiaren baitan dagoen baserri-etxe bati erreferentzia egiteko. *Agirre* baserriarekin lotutako izena izango da honako hau, geografikoki haren goialdean kokaturik baitago. Dokumentu guztietan izena osorik agertzen da: *Aguirregoitia* (1825 , PE/1825) eta *Aguirre-góitia* (1859 BUA, Nmcr). Forma horixe bera mantendu da azken erroldean ere: *Aguirregóiti* (1967, BUA, CE). Aurreko kasuan bezalaxe, hemen ere ahozko forma, hots, *Agérre*, abiapuntutzat hartuta *Agérrégóti* osatu da. Elkarren ondoko etxe bik osatutako baserria da. Berriena eskumakoa da, zaharragoari kendutako zati bat aprobetxatuz jaso. Eta etxe zaharrenean ere bi aldi, behintzat, antzeman daitezke. Lehenengo egindako etxeak leiho gutxi eta txikiak eta silarri luzenak dauzka fatxadan XVI. mendean Be-

rriz inguruan hain ohikoak zirenak. Mende bat beranduago, etxea handitu egin zuten. Guztiz eraldatuta ageri bada ere, horma berriak egin dituztelako, eredia XVII. mendean zabaldu zena da, hiru gorputzekoa. Aldamenetakoak, harrizkoak, euren kantal eta guzti, eta erdian, atarte zabala. Hain zabala ezen, egurrezko hiru zutoinen bidez antolatuta dagoela eta zurezko dintelen babesean. Hauen gain osoa egurrezko egituraz armatu zuten, tarteko harlangaitzezko hormekin. Leihoak lehen solairuan baino ez ditu. Teilatua bi isuritakoa da.

Horrelakoa da ere eskuma aldeko etxea, guztiz berriztatuta ageri dena. Harlangaitza erabili zuten hormetarako, baina harlandu ederra du kantaletan eta leiho guztien ertzetan. Hauek neurri onekoak dira, oso zaharrak ez direnaren seinale, ganbarako hormigoizko balkoia den moduan. Harri bateko inskripzio batek aldamenekoa jaso zeneko berri ematen digu, 1906, alegia.

toponimia

Agirre (Ikus Agirre) baserriaren gaineko aldean dagoen baserria.